

Dibulgazio-testuak

Dibulgazio-testua azalpen-testu bat da, gai bati buruzko azalpenak ematen ditu.

Dibulgazio-testuek gauza jakingarriak eta interesgarriak azaltzen dituzte. Publiko zabal bantentzat idatzita daude eta informazio orokorra modu erraz eta objektiboan ematen dute. Testu hauek aldizkarietan, egunkarietan eta eskolako testu-liburuetan azaldu ohi dira.

Helburua

- Publiko zabal bati gai baten berri ematea
- Informazioa modu objektibo eta argian azaltzea

Dibulgazio-testu batek benetako informazioa ematen digu eta **adibideak** eta **datuak** ematen dira maiz **objektibotasuna indartzeko**. Horrelako testuetan, batez ere, orainaldiko aditza erabili ohi da.

Dibulgazio-testuak **argiak** dira eta **paragrafotan banatuta** egoten dira, honek ulergarritasunari laguntzen baitio. Paragrafo bakoitzean ideia nagusi bat kokatu ohi da:

Egitura

- 1) Paragrafoa – gaiaren aurkezpena
- 2) Paragrafoa – 1. Ideia nagusia
- 3) Paragrafoa – 2. Ideia nagusia
- 4) ...